

2019KO EKAINAREN 26AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko ekainaren 26an arratsaldeko 18:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Xabier Azpiroz, M^a Mar Ansorena, Santos Etxegia, Julen Beunza, Olatz Dorai eta Ricardo Arangoa.

18:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Osoko Bilkuren maiztasuna.

Idazkariak azaltzen du 1985/7. Tokiko Erregimenaren oinarriak arautzen duen legearen 46. Artikulua araberako 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak hilabetero bildu behar dira batzarrean, bi hilabetero 5000 eta 20000 biztanleko arteko udalerriak eta hiru hilabetero 5000 biztanle baino gutxiago dizuten udalerriak. Bildutakoak aurreko legealdiko ohitura jarraituz hilabetero biltzea erabaki dute.

2.- Batzordeen osaketa.

Alkateak jakitera ematen du batzordeak irekiak izateko idea dutela legealdi honetan ere eta bakoitzaren osaketaren prestakuntzekin ari direla. Batzordeak hauek izanen dira:

Garapen Batzordea, Xabier Azpiroz lehendakaria

Ogasun Batzordea, Xabier Azpiroz lehendakaria

Komunikazio Batzordea, Xabier Azpiroz lehendakaria

Berdintasun Batzordea, Esther Azpiroz eta M^a Mar Ansorena lehendakariak

KOntzejuen Batzordea, Santos Etxegia lehendakaria

Gizarte Politika Batzordea, M^a Mar Ansorena lehendakaria

Kirol Batzordea, Julen Beunza lehendakaria

Hirgintza Batzordea, Esther Lacasta lehendakaria

Hezkuntza Batzordea Esther Lacasta eta Julen Beunza lehendakariak

Euskara eta Kultura Batzordea Olatz Dorai lehendakaria

Gaztedia Batzordea Julen Beunza eta Olatz Dorai lehendakariak

3.- Udalez kanpoko ordezkariak banaketa.

Alkateak irakurtzera ematen du udalak kanpoko entitateen zerrenda, bildutakoek ordezkariak erabakitzeko: ordezkaria eta honen ordezkariak izendatuko dira.

- Iparraldeko Euskara Mankomunitatea.
- Nafarroako Kontzeju eta Udalen Federakuntza.
- Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea.
- Kirol batzordea.
- Eraikin eta Etxebizitzaren Eraberritzerako Bulegoa.
- Aralar Musika Eskola.
- Eskola Kontseilua.
- Iruñerriko Zerbitzuen Mankomunitatea.
- Osasun Kontseilua.
- UEMA.
- Basaburua Imotz Udal Elkartzea.
- Ametza.
- Udalbiltza
- Cederna Garalur

Bildutakoak gaia eztabaidatuta ondoko izendapenak onartzen dituzte:

- **Olatz Dorai izendatzea Iparraldeko Euskara Mankomunitateko ,Basaburuko Udaleko ordezkaria eta Julen Beunza ordezkaria.**
- **Jakinaraztea akordio hau Iparraldeko Euskara Mankomunitatera.**
- **Esther Lakasta izendatzea Nafarroako Kontzeju eta Udalen Federakuntzarako ,Basaburuko Udaleko ordezkaria eta Santos Etxegia ordezkaria.**
- **Jakinaraztea akordio hau Nafarroako kontzeju eta Udalen Federakuntzari.**
- **M^a Mar Ansorena eta Esther Lakasta izendatzea Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateko ,Basaburuko Udaleko ordezkariak eta hauen ordezkari bezala Santos Etxegia eta Olatz Dorai.**
- **Jakinaraztea akordio hau Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatera.**

- Xabier Azpiroz izendatzea Cederna Garalurreko ,Basaburuko Udaleko ordezkaria eta Santos Etxegia ordezkoa.
- Jakinaraztea akordio hau Cederna Garalurri.
- Julen Beunza izendatzea Basaburua Imotz kirol batzordeko ,Basaburuko Udaleko ordezkaria eta Ricardo Arangoa ordezkoa.
- Jakinaraztea akordio hau Basaburua Imotz Kirol Batzordeari.
- Santos Etxegia izendatzea Eraikin eta Etxebizitzen Eraberritzerako Bulegorako ,Basaburuko Udaleko ordezkarian eta Ricardo Arangoa honen ordezkoa.
- Jakinaraztea akordio hau Eraikin eta Etxebizitzen Eraberritzerako Bulegora.
- Olatz Dorai izendatzea Aralar Musika Eskolarako, Basaburuko Udaleko ordezkaria eta Julen Beunza honen ordezkoa.
- Jakinaraztea akordio hau Aralar Musika Eskolara.
- Esther Lakasta izendatzea Oihanzabal Ikastetxerako Eskola Kontseilurako ,Basaburuko Udaleko ordezkaria eta Julen Beunza honen ordezkoa
- Jakinaraztea akordio hau Oihanzabal Ikastetxera.
- Santos Etxegia izendatzea Iruñerriko Zerbitzuen Mankomunitateko ,Basaburuko Udaleko ordezkaria eta Ricardo Arangoa honen ordezkoa.
- Jakinaraztea akordio hau Iruñerriko Zerbitzuen Mankomunitatera
- M^a Mar Ansorena izendatzea Osasun Kontseiluko ,Basaburuko Udaleko ordezkaria.
- Jakinaraztea akordio hau Osasun kontseilura.
- Esther Lakasta izendatzea UEMAko ,Basaburuko Udaleko ordezkaria eta Olatz Dorai honen ordezkoa.
- Jakinaraztea akordio hau UEMAr.
- Ikusita Basaburua Imotz Udal Elkartzeko izendatuak 4 izan behar direla biztanleen ariora Basaburuari lau ordezkari dagokiola, izendatzea Esther Lakasta, Santos Etxegia, Julen Beunza eta Ricardo Arangoa , Basaburuko Udaleko ordezkari.
- Jakinaraztea akordio hau Basaburua Imotz Udal Elkartzeari.
- Olatz Dorai izendatzea Ametzarako ,Basaburuko Udaleko ordezkaria eta Julen Beunza honen ordezkoa.

- **Jakinaraztea akordio hau Ametzari.**

- **Xabier Azpiroz izendatzea Udalbiltzako ,Basaburuko Udaleko ordezkaria eta honen ordezkoa M^a Mar Ansorena .**

- **Jakinaraztea akordio hau Udalbiltzara.**

4.- Alkate ordearen izendapena

Alkateak Apirilaren 2ko 1985/7 Tokiko Erregimenaren oinarriak arautzen duen legearen 21.12 artikularen arabera Xabier Azpiroz Latasa, Basaburuko Udaleko alkate orde izendatzen duela adierazten du.

Bildutakoek onartzen dute izendapena.

5.- Alkatearen ordainsaria eta zinegotzien dietak

Alkateak azaltzen du aurreko legealdian bezala eta udaleko beharrak ikusita astero 10 orduko eskaintza eginen duela eta lanari ordu hauek kentzen dizkionez 573,31 euroko soldata gordina 12 hilabetetan jaso duela bere lanean jasotzen duen hilabeteko soldata oinarrira iritsiz, hortaz bildutakok aho batez onartzen dute:

- **Esther Lakasta Perez Iizarbe alkatearen asteko udalarekiko dedikazioa 10 ordukoa izatea eta honekin lotutako hilabeteko soldata oinarria 598,64 euro izatea, 12 hilabetetan.**
- **Akordio hau Bidera Aholkularitza enpresara jakinaraztea.**

Bestetik eta oraindik zinegotzien dietak eta lokomozioaren gastua erabakitzeke dagoenez bildutakoak gai aztertu ondoren eta ikusita aurreko legealdietan ordaintzen ziren kopuruak batzarretara eta beste bileretara joateagatik, eta ikusita alkatearen dedikazioaren gastua eta Toki Administrazioako Departamentutik jasotzen den ekarpena, aho batez onartzen dute ondoko akordioa:

- **Osoko Bilkura eta batzordeetara joateagatik kobratuko den dieta 45 eurokoa izatea batzar edo batzorde bakoitzeko.**
- **Lokomozioa 0,30 euro/km finkatzea Nafarroako administrazioako langileek duten bezala.**

Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila xedatzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikuluari eta Toki Entitateen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986

Errege Dekretuko 13. artikuluei jarraikiz. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila xedatzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikuluari eta Toki Entitateen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 13. artikuluei jarraikiz.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez eta arratsaldeko 18:30ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du